



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko urtarrilaren 11

1. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, onetsi den araubide berriaren argitan bikote egonkorak udaletxeetan formalizatzeari buruzkoa. María Virginia Magdaleno Alegria andreak egin du (3. or.).
- Galdera, Nafarroako Foru Komunitatearen zorpetze-mailari buruzkoa. Ainhoa Unzu Garate andreak egin du (4. or.).
- Galdera, Erripagaña auzoaren etorkizunerako ereduari buruzkoa. María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak egin du (4. or.).
- Galdera, Ebro ibaiaren tratamendu integralari ekiteko plan, neurri eta jarduketari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (5. or.).
- Galdera, hartzaile guztiei bizitzeko gutxieneko diru-sarrera kobratzea bermatze aldera Nafarroako Gobernuak hartutako neurriari buruzkoa. Nuria Medina Santos andreak egin du (6. or.).
- Galdera, Nafarroako Poliziei buruzko 23/2018 Foru Legearen erregelamendu-garapenari buruzkoa, foruzain-lanpostuak betetzei eta haien prestakuntzari dagokienez. José Suárez Benito jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, Espainiako Gazteria Batzordeak duen Emantzipazioaren Behatokia Nafarroako gazteen emantzipazioari buruz jasotako azken datuari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, EH Bildu koalizioarekiko legegintzaldi-bukaerara arteko akordioei buruzkoa. Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak onetsitako 2021erako Araugintza Plana betetzei buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egin du (8. or.).
- Galdera, Nafarroako administrazio publikoetan euskararen erabilera arautuko duen foru dekretu berriari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (8. or.).
- Galdera, Nafarroako Ubidearen 2. fasearen eraikuntza-proiektua amaitu eta aurkezteko datari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan COVID-19aren pandemiari aurre egiten ari zaizkion langileendako jarraibideei buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (9. or.).

- Galdera, Alderdi Popularraren 2012ko lan-erreforma indargabetzeko beharra aldeztari buruzkoa. Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak egin du (10. or.).
- Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko 2021eko enpleguaren datuei buruzkoa. Ramón Alzorritz Goñi jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, Hitzarmen Ekonomikoa aldatzeko negoziazioei heltzeko abiaburuei buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, 2021eko amaieran Nafarroa urperatu duten uholde historikoei buruzkoa. Pablo Azcona Molinet jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak 2022. urteari begira dituen erronkei buruzkoa. Ramón Alzorritz Goñi jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, osasun langileei eragindako higitze emozional eta profesionala zuzendu eta konpentsatzeko neurriei buruzkoa. Mikel Buil García jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoa onesten duen abenduaren 26ko 28/1990 Legea aldatzeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, osasun laguntzari eusteko eta osasun arloko langileak babesteko neurriei buruzkoa. Ana Isabel Ansa Ascunce andreak egin du (14. or.).
- Galdera, ibaien ibilguetako garbiketari eta mantentzeari buruz eta dragatuak egiteari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (15. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Kontuen Ganberaren Erregistro Orokorren 2022. urterako ordutegi ofiziala (16. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, onetsi den araubide berriaren argitan bikote egonkorak udaletxeetan formalizatzeari buruzkoa.

MARÍA VIRGINIA MAGDALENO ALEGRÍA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Virginia Magdaleno Alegría andreak aurkeztutako galdera, onetsi den araubide berriaren argitan bikote egonkorak udaletxeetan formalizatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 10ean

Lehen lehendakariordea: María Inmaculada Jurío Macaya

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Virginia Magdaleno Alegría andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan eza-

rrita dagoenaren babesean, honako galdera hau egiten dio Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Bikote Egonkorren Nafarroako Erregistro Bakarra eratzen duen Foru Dekretuak ezartzen zuen, Foru Berriaren eguneraketa beterik, ezen Erregistroan “publizitate eta froga ondorioetarako” izen eman nahi zuten bikote egonkorak inskribatu beharko zirela dokumentu publikoz halakotzat eratu ondoren.

Zer lankidetzaharreman ari da jorratzen Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamendua udalerriekin eta Udal eta Kontzejuen Federazioarekin, bikote egonkorak udaletan formalizatu ahal izateko, onetsi den araubide berriaren argitan?

Iruñean, 2021eko abenduaren 23an

Foru parlamentaria: Virginia Magdaleno Alegría

Galdera, Nafarroako Foru Komunitatearen zorpetze-mailari buruzkoa.

AINHOA UNZU GARATE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Foru Komunitatearen zorpetze-mailari buruz Ainhoa Unzu Garate andreak aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 10ean

Lehen lehendakariordea: María Inmaculada Jurío Macaya

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ainhoa Unzu Garate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Noraino iristen da gaur egun Nafarroako Foru Komunitatearen zorpetzea?

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 3an

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Gárate

Galdera, Erripagaña auzoaren etorkizunerako ereduari buruzkoa.

MARÍA ARANZAZU BIURRUN URPEGUI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Erripagaña auzoaren etorkizunerako ereduari buruz María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 10ean

Lehen lehendakariordea: María Inmaculada Jurío Macaya

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Arantza Biurrun Urpegui andreak Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak konpromisoa hartu zuen Erripagaña auzoaren etorkizunerako ereduak ukitutako Burlata, Eguesibar, Iruñea eta Uharte udalerriekin adosteko. Horren ondotik hau jakin nahi dut:

Nola ekinen zaio hartutako konpromisoari, zein dira epeak eta zer helburu bilatzen da?

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 3an

Foru parlamentaria: Arantza Biurrun Urpegui

Galdera, Ebro ibaiaren tratamendu integralari ekiteko plan, neurri eta jarduketei buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Ebro ibaiaren tratamendu integralari ekiteko plan, neurri eta jarduketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 10ean

Lehen lehendakariordea: María Inmaculada Jurío Macaya

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko parlamentari Marisa De Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Parlamentu honek 2022ko urtarrilaren 13an eginen duen Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

Ebro ibaiak gainezka egin ondoren izandako azken uholdeek hondamendi handia eragin dute Nafarroako Erriberan, Aragoi eta Errioxan. Barra erauntsiaren ondorioak hondamenezkoak izan dira Ebro ibaiaren arroko zati handi batean. Uholdeak ur-goraldiak eragin ditu Ebro ibaiaren ibaiadar handietako batzuetan (Arga, Aragoi, Ega...), eta ondorioz milaka hektarea hartu ditu urak Nafarroan, Aragoi eta Errioxan.

Nafarroan, Tuteran, Castejón edo San Adrián bezalako udalerritan pairatu dituzte Ebro ibaiak gainezka egin ondoren izandako uholdeak, eta erregistro historikoak gainditu dira. Iruñean Arga ibaiak azken bi hamarkadetako goraldirik handiena izan du eta Tuterako Alde Zaharrean ura 1,5 metroko altuerara iritsi da.

Agerikoa denez, beharrezkoa da Ebro ibaiaren ibilbide osorako konponbide integral bat bilatzea, uraren aprobetxamendu optimoa, uholdeak izanez gero kalteen minimizazioa eta oreka ekologikoa ahalbidetuko dituena.

Behar urgenteei erantzuteaz gain, hala nola kaltetutako nekazarien eta uholdeak moduz batez edo bestez ukitutako pertsonen kalte-ordainak, premiazkoa da eremu urperakorrei buruzko araudi bat, oreka naturalarekin eta interes komunarekin bateragarria izanen dena, fenomeno meteorologikoen kalteak ahalik eta gehien minimizatzeko.

Uholde berri honek erakutsi dugu beharrezkoa dela modu prebentiboan jardutea ibaiaren ibilguan eta eremu urperakorretan. Horri lotuta, oso deigarria da Ebroko Foroa geldirik egotea eta Ebroko Plan Integratuaren ekintzak bete gabe egotea.

Bestalde, nahiz eta Ebro Resilience Estrategiak, Ebro ibaiaren arroko Uholde Arriskua Kudeatzeko Planaren zati den aldetik, uholde kasuetarako prebentzio-, babes-, prestaketa- eta berreskuratze-neurriak aurreikusten dituen, bai eta ibaietako ekosistemen hobekuntza ere, ez da aurrerapen handirik antzematen. Premiazkoa da estrategia horren helburua garatzea, zeina baita uholdeen inpaktua murriztea, hala ahalbidetuko baita ur masen eta habitaten egoera hobetzea Nafarroako udalerrietan, bai eta Errioxa eta Aragoikoetan ere.

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak Ebro ibaiaren tratamendu integral bat aztertzeke zer plan, neurri eta jarduketa aurreikusi ditu beste autonomia-erkidego batzuekin elkarlanean, oreka naturalarekin bateragarria izanen den ibaiaren aprobetxamendu optimoa ahalbidetzeko eta uholdeei aurrea hartu eta kalteak minimizatzeko?

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 3an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, hartzaile guztiei bizitzeko gutxieneko diru-sarrera kobratzea bermatze aldera Nafarroako Gobernuak hartutako neurriei buruzkoa.

NURIA MEDINA SANTOS ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nuria Medina Santos andreak aurkeztutako galdera, hartzaile guztiei bizitzeko gutxieneko diru-sarrera kobratzea bermatze aldera Nafarroako Gobernuak hartutako neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 10ean

Lehen lehendakariordea: María Inmaculada Jurío Macaya

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Nuria Medina Santos andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Eskubide Sozialetako kontseilariak hurrengo Osoko Bilkuran, 2022ko urtarrilaren 13an, ahoz erantzun dezan:

Zer neurri hartu du Nafarroako Gobernuak bizitzeko gutxieneko diru-sarrera jasotzen duten guztiek prestazioa dagokien moduan kobratzen jarrai dezaten bermatzeko?

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 3an

Foru parlamentaria: Nuria Medina Santos

Galdera, Nafarroako Poliziei buruzko 23/2018 Foru Legearen erregelamendu-garapenari buruzkoa, foruzain-lanpostuak betetzeari eta haien prestakuntzari dagokienez.

JOSÉ SUÁREZ BENITO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Suárez Benito jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Poliziei buruzko 23/2018 Foru Legearen erregelamendu-garapenari buruzkoa, foruzain-lanpostuak betetzeari eta haien prestakuntzari dagokienez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 10ean

Lehen lehendakariordea: María Inmaculada Jurío Macaya

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen José Suárez Benito jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lehendakariorde, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zertan da Nafarroako Poliziei buruzko 23/2018 Foru Legearen erregelamendu-garapena, foruzain-lanpostuak betetzeari eta haien prestakuntzari dagokienez?

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 4an

Foru parlamentaria: José Suárez Benito

Galdera, Espainiako Gazteria Batzordeak duen Emantzipazioaren Behatokia Nafarroako gazteen emantzipazioari buruz jasotako azken datuari buruzkoa.

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkeztutako galdera, Espainiako Gazteria Batzordeak duen Emantzipazioaren Behatokia Nafarroako gazteen emantzipazioari buruz jasotako azken datuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 10ean

Lehen lehendakariordea: María Inmaculada Jurío Macaya

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lehendakari-tzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako gazte politiken arduradun nagusia zaren aldetik, zer iritzi duzu Espainiako Gazteria Batzordeak duen Emantzipazioaren Behatokia Nafarroako gazteen emantzipazioari buruz jasotako azken datuari buruz?

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 4an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

Galdera, EH Bildu koalizioarekiko legegintzaldi-bukaerara arteko akordioei buruzkoa.

CARLOS PÉREZ-NIEVAS LÓPEZ DE GOICOECHEA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak aurkeztutako galdera, EH Bildu koalizioarekiko legegintzaldi-bukaerara arteko akordioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 10ean

Lehen lehendakariordea: María Inmaculada Jurío Macaya

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190, 191 eta 192. artikuluetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Gobernuko lehendakariak ahoz erantzun dezan:

EH Bildu koalizioaren azken izendapenak eta ETA talde terroristako presoen omenezko ekitaldiak behin eta berriz babesten dituela ikusirik, Nafarroako Gobernuko lehendakariak koalizio horrekin dituen akordioak legegintzaldia amaitu arte mantentzeko asmoa al du?

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 4an

Foru parlamentaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

Galdera, Nafarroako Gobernuak onetsitako 2021erako Araugintza Plana betetzeari buruzkoa.

JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak onetsitako 2021erako Araugintza Plana betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 10ean

Lehen lehendakariordea: María Inmaculada Jurío Macaya

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer balorazio egiten duzu zure gobernuak onetsitako 2021erako Araugintza Plana betetzeari buruz?

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 4an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, Nafarroako administrazio publikoetan euskararen erabilera arautuko duen foru dekretu berriari buruzkoa.

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako administrazio publikoetan euskararen erabilera arautuko duen foru dekretu berriari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 10ean

Lehen lehendakariordea: María Inmaculada Jurío Macaya

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Noizko onetsiko du Gobernuak Nafarroako administrazio publikoetan euskararen erabilera arautuko duen foru dekretu berria?

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 4an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

Galdera, Nafarroako Ubidearen 2. fasearen eraikuntza-proiektua amaitu eta aurkezteko datari buruzkoa.

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Ubidearen 2. fasearen eraikuntza-proiektua amaitu eta aurkezteko datari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 10ean

Lehen lehendakariordea: María Inmaculada Jurío Macaya

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako Miguel Bujanda Cirauquik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer data aurreikusten du Gobernuak Nafarroako Ubidearen bigarren fasea eraikitzeke proiektua amaitu eta aurkezteko?

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 4an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan COVID-19aren pandemiari aurre egiten ari zaizkion langileendako jarraibideei buruzkoa.

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak aurkeztutako galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan COVID-19aren pandemiari aurre egiten ari zaizkion langileendako jarraibideei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 10ean

Lehen lehendakariordea: María Inmaculada Jurío Macaya

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Txomin González Martínez jaunak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilari Santos Indurain Orduna andreak ahoz erantzun dezan:

COVID-19aren seigarren olatu betean gaude, kasuen kopurua esponentzialki areagotzen ari da eta hori aurre egiteko baliabideak eskasak dira. Ondorioz, 2022 urtearen hasiera zaila izaten ari da, eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileen eskaera-maila bereziki handia izaten ari da.

Abenduaren 27tik urtarrilaren 2rako astean, 24.060 kasu baieztatu dira PCR bidez (100.000 biztanleko, 3.683), aurreko astearen aldean igotzea handia gertatu baita (% 111,75). Halaber, 125 ospitaleratze izan dira eta 11 gaixo ZIUn sartu dira COVID-19a dela-eta. Aurreko astean baino 50 ospitaleratze gehiago izan dira, eta gaixo 1 gehiago sartu da ZIUn. 2022ko urtarrilaren 2an, COVIDagatikoko okupazioa 178 pertsonakoa da:

135 solairuan, 21 etxeko ospitaleratzean eta 22 ZIUUn.

Zerbitzuaren egoerak behartuta, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko jarduneko zuzendari kudeatzaileak 1/2022 jarraibidea eman du, eta bertan hau jasotzen da:

1.- Opor, lizentzia eta baimenak ukatzea, errebokatzea eta etetea. Opor, lizentzia, baimen eta lanaldi murrizketak ukatu, errebokatu eta eten ahalko dira, bai eta jada emandakoak ere. Hala-ber, lana banatzeko emandako baimenak ukatzen edo eteten ahalko dira, 6/2020 Foru Legearen 4.5. artikuluan ezarritako baldintzekin. Baimena errebokatu edo eteteko organo eskudunak kasuko zentroko zuzendaritza eta zerbitzuburuei, eta

haiek berretsi beharko dituzte hartutako erabakiak.

2.- 2021eko oporrak hartzeko aldia luzatzea. Jarraibide honetako 3. puntuan aipatzen diren unitate eta lan-arloetako langileek 2021 urteari dagozkion opor egunak hartu ahalko dituzte 2022ko martxoaren 31ra arte.

Hori ikusirik, ondokoa jakin nahi dut:

Osasuneko kontseilariak ba al du asmorik COVID-19ak eragindako pandemiari aurre egiten ari diren eta, gainera, beren lan eskubideak eten zaizkien langileei aitortza egiteko eta konpentsazioaren bat emateko?

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 4an

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

Galdera, Alderdi Popularraren 2012ko lan-erreforma indargabetzeko beharra aldezteari buruzkoa.

ARANZAZU IZURDIAGA OSINAGA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak aurkeztutako galdera, Alderdi Popularraren 2012ko lan-erreforma indargabetzeko beharra aldezteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 10ean

Lehen lehendakariordea: María Inmaculada Jurío Macaya

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Arantxa Izurdiaga Osinaga andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak aldeztuko ditu Alderdi Popularrak 2012an egindako lan erreforma indargabetzeko beharra, Nafarroako Parlamentuak behin eta berriz eskatutako moduan, eta Nafarroako esparruko negoziazio kolektiboaren lehentasuna Estatuko hitzarmenen aurrean?

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 4an

Foru parlamentaria: Arantxa Izurdiaga Osinaga

Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko 2021eko enpleguaren datuei buruzkoa.

RAMÓN ALZORRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Foru Komunitateko 2021eko enpleguaren datuei buruz Ramón Alzorriz Goñi jaunak aurkeztutako galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 10ean

Lehen lehendakariordea: María Inmaculada Jurío Macaya

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzorriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, gaurkotasan handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran erantzun dezan.

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du Nafarroako Foru Komunitateko enpleguaren datuei eta etorkizuneko perspektibei buruz?

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 4an

Foru parlamentaria: Ramón Alzorriz Goñi

Galdera, Hitzarmen Ekonomikoa aldatzeko negoziazioei heltzeko abiaburuei buruzkoa.

MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak aurkeztutako galdera, Hitzarmen Ekonomikoa aldatzeko negoziazioei heltzeko abiaburuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 10ean

Lehen lehendakariordea: María Inmaculada Jurío Macaya

Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak 2022ko urtarrilaren 13ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Iragan abenduaren 23ko Osoko Bilkuran Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoa aldatzeko proposamena eztabaidatu zen eta, azkenik, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak hura erretiratzea erabaki zuen, bozketara iritsi aurretik. Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

Nola, zein abiaburutan oinarrituta, ekinen diozu Hitzarmena aldatzeko negoziazioari berriro Parlamentuko Osoko Bilkurari aurkeztu aurretik?

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 4an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Asiain Torresek, Legebiltzarreko

Galdera, 2021eko amaieran Nafarroa urperatu duten uholde historikoei buruzkoa.

PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak aurkeztutako galdera, 2021eko amaieran Nafarroa urperatu duten uholde historikoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 10ean

Lehen lehendakariordea: María Inmaculada Jurío Macaya

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Pablo Azcona Molinet jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak 2022ko urtarrilaren 13ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Hilabete bat pasa da 2021eko amaieran Nafarroa urperatu duten uholde historikoak izan zirenetik. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak zer balorazio egiten du izandako kalteei buruz eta zer laguntza-lerro ari da lantzen?

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 4an

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

Galdera, Nafarroako Gobernuak 2022. urteari begira dituen erronkei buruzkoa.

RAMÓN ALZORRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Gobernuak 2022. urteari begira dituen erronkei buruz Ramón Alzorriz Goñi jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 10ean

Lehen lehendakariordea: María Inmaculada Jurío Macaya

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzorriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak 2022ko urtarrilaren 13ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Zein dira Nafarroako Gobernuaren erronkak 2022. urteari begira?

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 3an

Foru parlamentaria: Ramón Alzorriz Goñi

Galdera, osasun langileei eragindako higatze emozional eta profesionala zuzendu eta konpentsatzeko neurriei buruzkoa.

MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, osasun langileei eragindako higatze emozional eta profesionala zuzendu eta konpentsatzeko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 10ean

Lehen lehendakariordea: María Inmaculada Jurío Macaya

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Mikel Buil García jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Osasuneko kontseilariak urtarrilaren 13ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Osasun zerbitzuko langileen oporren atzeratzea ikusirik eta pandemia eragiten ari den higatze emozional eta profesional agerikoa aintzat hartuta.

Zer neurri proposatzen ditu Nafarroako Gobernuak egoera honek langileei eragindako desoreka zuzendu eta konpentsatzeko?

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 10ean

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

Galdera, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoa onesten duen abenduaren 26ko 28/1990 Legea aldatzeari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoa onesten duen abenduaren 26ko 28/1990 Legea aldatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 10ean

Lehen lehendakariordea: María Inmaculada Jurío Macaya

GALDERAREN TESTUA

Adolfo Araiz Flamarique jaunak gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten dio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu dezan eta Gobernuak lehendakariak 2022ko urtarrilaren 13ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Pasa den abenduaren 23ko Osoko Bilkuran, Nafarroako Parlamentuak Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoa onesten duen abenduaren 26ko 28/1990 Legearen 67 h) artikulua aldatzeko proposamena eztabaidatu zuen, baina ez zuen berretsi, bozketa aurretik erretiratu egin baitzen. Nafarroako Gobernuak aurreikusi al du aldaketa hori, Parlamentura igorritako moduan, bertan behera uzteko aukera, Nafarroako indar politikoen arteko akordioa lortu eta beharrezko gehiengo osoa ahalbidetzeko xedez?

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 10ean

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, osasun laguntzari eusteko eta osasun arloko langileak babesteko neurriei buruzkoa.

ANA ISABEL ANSA ASCUNCE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Isabel Ansa Ascunce andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, osasun laguntzari eusteko eta osasun arloko langileak babesteko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 10ean

Lehen lehendakariordea: María Inmaculada Jurío Macaya

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Ana Ansa Ascunce andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau

aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak datorren ostegunean, urtarrilaren 13ko Osoko Bilkuran, ahoz erantzun dezan:

Seigarren olatu beteaz gaude, intzidentzia gainezka eginik, Oinarrizko Laguntza kolapsatzeko zorian, ospitaleetako presioa areagotzen ari dela, eta kurba noiz apalduko den ezin igarri. Eta osasun arloko kolektiboa, langilez justu zebilena seigarren olatuaren hasieran, ikusten ari da nola murritzten ari den langile kopurua haien arteko kutsatzeen intzidentzia handiagatik, eta txandak bikoiztu, atsedendiak laburtu eta jaiegunak ateratzera behartzen ari dira.

Horregatik guztiagatik, honako ahozko galdera hau egiten diogu Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariari:

Zer neurri hartuko ditu departamentuak osasun laguntzari eusteko eta osasun arloko langileak babesteko?

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 10ean

Foru parlamentaria: Ana Ansa Ascunce

Galdera, ibaien ibilguetako garbiketari eta mantentzeari buruz eta dragatuak egiteari buruzkoa.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko urtarrilaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, ibaien ibilguetako garbiketari eta mantentzeari buruz eta dragatuak egiteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 10ean

Lehen lehendakariordea: María Inmaculada Jurío Macaya

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen José Javier Esparza Abaurrea jaunak gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zein da Nafarroako Gobernuaren iritzia ibaien ibilguetako garbiketari eta mantentzeari buruz eta dragatuak egiteari buruz?

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 10ean

Foru parlamentaria: José Javier Esparza

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Kontuen Ganberaren Erregistro Orokorraren 2022. urterako ordutegi ofiziala.

Nafarroako Kontuen Ganberaren Erregistro Orokorraren 2022rako ordutegi ofiziala zehazte aldera, erakunde honen bulegoetan aurkezten ahal den dokumentazio ofiziala jasotzekari dagokionez, lehendakaritza honek

ERABAKI DU:

Lehena. Xedatzea ezen Nafarroako Kontuen Ganberaren Erregistro Orokorraren 2022. urterako ordutegi ofiziala, bere bulegoetan dokumentuak aurkeztekoa, 09:00etatik 14:00etara bitartekoa izanen dela, astelehenetik ostiralera.

Bigarrena. Xedatzea dokumentazioa erregistratzearen ondorioetarako, erakunde honen Erregistro Orokorra itxita egonen dela larunbate-

tan, igandetan eta Nafarroako Gobernuko Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publiko eta Barneko kontseilariaren abenduaren 16ko 154/2021 Foru Aginduan ezarritako jai egunetan, bai eta uztailaren 6, 7, 8, 11, 12, 13 eta 14an, egun horiek baliogabeak izanen baitira ondorio guztietarako.

Hirugarrena. Erabaki honen berri Nafarroako Kontuen Ganberako langile guztiei ematea, eta agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Kontuen Ganberaren webgunean argitara dadin.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 5ean

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga